

AGINDUA, GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, BESTE AGINDU HONEN PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EUSKAL INSTITUTUAK PRESTAKUNTZA-EKINTZAK ETA -PLANAK HOMOLOGA DITZAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA ARAUTZEN DITUEN AGINDUA.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12.1 artikuluan xedatzen denez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez hasiko da.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 22.3 artikulua arabera, IVAP – Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak eskumen hau du euskal administrazio publiko guztietako enplegatu publikoei dagokienez: «aintzatespena ematea Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatu edo eman ez duen prestakuntzari, eta konpetentzia profesionalei, dagokion garapen-araudian xedatutakoaren arabera».

Esparru hori garatzeko, bai Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 21eko 3/2023 Legegintzako Dekretuak eta bai Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen dituen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak xedatzen dute IVAPen helburuetako bat dela EAEko administrazio publikoetako langileei prestakuntza eta trebakuntza ematea.

Hain zuzen ere, homologazioaren arloko eskumena arau jakin batzuetan zehazten da. Batetik, 133/2021 Dekretuaren 14. artikulua berariaz esleitzen dio Prestakuntza Zerbitzuari egiteko hau: «prestakuntza-ekintzak homologatzea, gai horren inguruan indarrean dagoen araudia betez». Bestetik, Prestakuntza Planifikatu eta Antolatzeko Irizpide Orokorrei buruzko otsailaren 19ko 30/2008 Dekretuak 18. artikuluan ezartzen du IVAPen eginkizuna dela «prestakuntza-ekintzak homologatzea», eta 32. artikuluan xedatzen du «ikaskuntza-ekintzak homologatzeko eskumena duen organoa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea» dela.

Manu hori betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko martxoaren 8ko Agindua eman zen, IVAPek prestakuntza-jarduerak homologa ditzan bete beharreko eskakizunak eta prozedura erregulatzeko dena, zeina gaur egun indarrean baitago. Alabaina, argitaratu zenetik igaro den denborak eta geroztik izandako arau-aldaketek agerian utzi dute beste arau bat onartzeko beharra dagoela, prozedura errealtate berrietara egokitu dadin.





Arauketa berriaren bidez, aurrerapausoak egin nahi dira enplegatu publikoen prestakuntza efikazia eta efizientzia handiagoz kudeatzeko helburuari dagokionez; prozeduraren irismena zabaltzeko nahi da, banakako prestakuntza-ekintzak ez ezik, prestakuntza-planak ere, oro har, sartuta gera daitezkeen. Aldaketa horren bidez bi behar hauei erantzun zaien: batetik, prestakuntzari koherentzia estrategiko handiagoa emateko beharrari eta, bestetik, prestakuntzak eta erakunde eskatzaileen ildo estrategikoek eraginkortasun handiagoz bat egingo dutela ziurtatzeko beharrari; hartara, prestakuntza-eskaintza homologatuaren kalitatea hobetuko da, eta baliabideak optimizatuko dira.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutua Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren organismo autonomoa denez, sail horren titularrari dagokio prozedura hasteko agindu hau ematea, ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hauek dira agindu honen oinarritzko elementuak, aintzat hartuta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13. artikulua prozedura hasteko aginduen nahitaezko edukiari buruz dioena:

LEHENENGOA.– Prozeduraren xedea.

Hastear den prozeduraren xedea da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak prestakuntza-ekintzak eta -planak homologa ditzan bete beharreko baldintzak eta prozedura arautzeko aginduaren proiektua egitea.

BIGARRENA.– Agindu-proiektuaren helburua.

Proiektuaren helburua da IVA Pek prestakuntza-ekintzak eta -planak homologatzeko arau-esparru eguneratua ezartzea, abenduaren 1eko 11/2022 Legea, irailaren 21eko 3/2023 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretua eta otsailaren 19ko 30/2008 Dekretua betez. Horren bidez, zenbait helburu lortu nahi dira: batetik, homologazioaren xedea zabaltzea, banakako prestakuntza-ekintzak ez ezik, prestakuntza-planak ere barnean hartzeko; bestetik, ziurtatzea prestakuntza homologatuak plangintza estrategikoa izango duela eta antolakundearen behar errealei erantzun zaien; eta, azkenik, enplegatu publikoei zuzendutako prestakuntza-eskaintzaren kalitatea hobetzea eta baliabideen kudeaketa optimizatzea.

HIRUGARRENA.– Proiektuaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Hauek osatzen dute egikaritzen den eskumena gaitzeko lege-esparrua: Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legea; IVAPen Araubide Juridikoari buruzko irailaren 21eko 3/2023 Legegintzako Dekretua; maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren 14. artikulua, eta otsailaren 19ko 30/2008 Dekretuaren 18. eta 32. artikulua.

Agindu honen atarikoan azaldu dira proiektua egitea justifikatzen duten arrazoiak; finean, indarrean dagoen araudia egokitzeko premia eta prozeduraren efizientzia hobetzeko beharra.

LAUGARRENA.– Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Agindu-proiektua onartzeak berariaz indargabetuko du Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko martxoaren 8ko Agindua, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak prestakuntza-jarduerak homologa ditzan bete beharreko eskakizunak eta prozedura erregulatzea.



BOSGARRENA.– Aurrekontuetan eta ekonomian izango duen eragina.

Agindu honek ez du gastu publikoa handituko, eta ez du eraginik izango Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren aurrekontuan, zeren eta homologazio-prozedura IVApeko Prestakuntza Zerbitzuari atxikitako langileek kudeatuko baitute. Gainera, arauaren xedea sektore publikoko langileentzako prestakuntza homologatzea denez, ez da aurreikusten administrazio-kargarik sortzea, ez eta enpresen jardueran zuzeneko inpakturik izatea ere, bereziki enpresa txiki eta ertainen jardueran.

SEIGARRENA.– Bidezko iritzitako izapideak eta txostenak.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik eta dagokion oinarritzko izapidetze-ereduaren arabera garatuko da prozedura, Tramitagune plataforma informatikoaren bitartez. Hauek izango dira izapide nagusiak:

Aurretiazko kontsulta- eta hasiera-fasea.

Prozedura hasteko agindu hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da, gainerako sailek kontsulta dezaten. Halaber, Legegunea gardentasun-atarian ere argitaratuko da.

Instrukzio-fasea.

Testu artikulatuaren zirriborroa eta arau-eraginaren azterketari buruzko memoria idatziko dira, baita generoaren araberrako eraginari buruzko txostena ere, non aztertuko baita zer eragin izan dezakeen proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran; txosten hori Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeari helaraziko zaio.

Proiektua aldeztatik aurretik onartzeko aginduan proiektuaren testu artikulatua jasoko da; agindu hori iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da, informazio publikoaren izapidea eta dagozkion nahitaezko txostenak aldi berean eskatzeko epe amankomuna has daitezkeen. Prozedura horretan, nahitaezkoztzat jotzen dira Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren txostena eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena. 6/2022 Legearen 17.5 artikulua aplikatuz, aztertuko da ea egokia den herritarrei zuzenean entzuteko izapidea bazter uztea; izan ere, araua antolamendu mailakoa da, eta haren hartzaile nagusiak administrazio publikoak eta horko langileak dira. Foru- eta toki-administrazioei prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie.

Azaldu diren izapideak amaitu eta gero, nahitaezko eta funtsezko txostenak eskatuko dira; hau da, IVAPen aholkularitza juridikoaren txosten juridikoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 12.i) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta, behin txosten hori eskuratuta, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol ekonomikoari eta arau-kontrolari buruzko txostena.

Instrukzio-fasean, proiektua proposatu duen zuzendaritzak hasierako testua aldatu ahal izango du, txostenetan jasotako kontsiderazioak aintzat hartuta. Espedientea Kontrol Ekonomikoko Bulegora bidali baino lehen, eta proposatutako testua aldatzen denean, egindako aldaketak bilduko dituen memoria bat idatziko da, non justifikatuko baita, halaber, zergatik ez diren egin txostenetatik ondoriozta daitezkeen aldaketak.



Prozedura osoan zehar, Legegunea gardentasun-atarian argitaratuko dira mugarri eta dokumentu garrantzitsuak, indarrean dagoen araudia betez.

Ez da beharrezkoa izango Europar Batasuneko erakundeei honen berri emateko izapiderik egitea, aginduaren arloa ez baita Europar Batasuneko zuzenbidearen eremukoa.

ZAZPIGARRENA.– Proposatutako erregulazioaren edukia.

Agindu-proiektuak IVApek prestakuntza-ekintzak eta -planak homologa ditzan bete beharreko baldintzak eta prozedura arautuko ditu, eta alderdi hauek bilduko ditu, gutxienez:

Xedea eta aplikazio-eremua.

Hartzaileak eta kanpoan utzitakoak.

Prestakuntza-ekintzak homologatzeko baldintzak.

Prestakuntza-planak homologatzeko baldintzak.

Eskaerak aurkezteko prozedura, epeak eta dokumentazioa.

Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena.

Homologatutako ekintzak eta planak aldatzeko araubidea.

Entitate antolatzaileen betebeharrak eta IVApek egin beharreko egiaztapen-jarduketak.

Homologazioak justifikatzeko, erregistratzeko eta publiko egiteko araubidea.

ZORTZIGARRENA.– Proiektuaren idazketa elebiduna.

Espedientea hasten den unetik bertatik, IZO – Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala jakinaren gainean jarriko da. Elebitasuna bermatuz landuko da agindu-proiektua. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen zehaztasuna eta baliokidetasuna ziurtatzeko eskatuko zaio IZOri, agindu mailako xedapenatarako ezarrita dagoen prozedurari jarraituz.

BEDERATZIGARRENA.– Izapideez arduratuko den organoa.

IVAPen Hautaketa eta Prestakuntzako Zuzendariordetza izango da prozedura hau instruitzeaz eta izapidetzeaz arduratuko den organoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen dituen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak eta aplikatu beharreko gainerako araudiak esleitzen dizkion eskumenen arabera.



Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

BAKARRA.— Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak prestakuntza-ekintzak eta -planak homologa ditzan bete beharreko baldintzak eta prozedura arautzen dituen aginduaren proiektua egiteko prozedura hastea, agindu honetan adierazitako baldintzetan.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUA,
MARÍA UBARRECHENA CID



ORDEN, DE LA CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO, POR LA QUE SE INICIA EL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE ORDEN POR LA QUE SE REGULAN LOS REQUISITOS Y EL PROCEDIMIENTO PARA LA HOMOLOGACIÓN DE ACCIONES FORMATIVAS Y DE PLANES DE FORMACIÓN POR PARTE DEL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA.

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece en su artículo 12.1 que los procedimientos de elaboración de disposiciones de carácter general se iniciarán mediante orden de la persona titular del departamento competente por razón de la materia.

La Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, dispone en su artículo 22.3 que es competencia del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), en relación con el personal empleado público del conjunto de las administraciones públicas vascas, «el reconocimiento de la formación no organizada o impartida por el Instituto Vasco de Administración Pública y de las competencias profesionales, de conformidad con lo previsto en la correspondiente normativa de desarrollo».

En desarrollo de este marco, tanto el texto refundido de la Ley sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública, aprobado por el Decreto Legislativo 3/2023, de 21 de septiembre, como el Decreto 133/2021, de 4 de mayo, por el que se regula su estructura y funciones, establecen entre los fines del IVAP la formación y perfeccionamiento del personal al servicio de las Administraciones Públicas vascas.

De forma más específica, la competencia en materia de homologación se concreta en varias normas. Por un lado, el artículo 14 del citado Decreto 133/2021 atribuye expresamente al Servicio de Formación la función de «la homologación de las acciones formativas conforme a la normativa vigente sobre dicha materia». Por otro lado, el Decreto 30/2008, de 19 de febrero, de criterios generales de la planificación y organización de la formación, establece en su artículo 18 que una de las funciones del IVAP es la «homologación de las acciones formativas», y reitera en su artículo 32 que «el órgano competente para la homologación de las acciones de aprendizaje es el Instituto Vasco de Administración Pública».



En cumplimiento de dicho mandato, se dictó la Orden de 8 de marzo de 2017, del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regulan los requisitos y el procedimiento para la homologación de acciones formativas por parte del IVAP, actualmente vigente. El tiempo transcurrido desde su publicación y los cambios normativos posteriores a la orden han evidenciado la necesidad de dictar una nueva norma para adecuar el procedimiento a las nuevas realidades.

Con una nueva regulación, se busca avanzar en una gestión más eficaz y eficiente de la formación del personal empleado público, ampliando el alcance del procedimiento para incluir no solo las acciones formativas individuales, sino también los planes de formación en su conjunto. Esta modificación responde a la necesidad de dotar a la formación de una mayor coherencia estratégica y de asegurar una alineación más efectiva con las líneas estratégicas de las instituciones solicitantes, al tiempo que permite optimizar los recursos y mejorar la calidad de la oferta formativa homologada.

Siendo el Instituto Vasco de Administración Pública un organismo autónomo adscrito al Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, corresponde a la persona titular de dicho departamento, en virtud de lo dispuesto en el artículo 12.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, dictar la presente orden de inicio.

De conformidad con el contenido necesario que debe tener la orden de iniciación conforme al artículo 13 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, se exponen a continuación los elementos que fundamentan la presente orden:

PRIMERO.- Objeto del procedimiento.

El objeto del procedimiento que se inicia es la elaboración de un proyecto de orden para regular los requisitos y el procedimiento de homologación de acciones y planes formativos por parte del Instituto Vasco de Administración Pública.

SEGUNDO.- Finalidad del proyecto de Orden.

La finalidad del proyecto es establecer un marco normativo actualizado que regule la homologación de acciones y planes formativos por parte del IVAP, en cumplimiento de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre; el Decreto Legislativo 3/2023, de 21 de septiembre; el Decreto 133/2021, de 4 de mayo; y el Decreto 30/2008, de 19 de febrero. Con ello se persigue, por un lado, ampliar el objeto de la homologación para incluir planes de formación, además de acciones formativas individuales. Por otro lado, asegurar que la formación homologada responde a una planificación estratégica y a las necesidades reales de las organizaciones. Por último, optimizar la gestión de recursos y mejorar la calidad de la oferta formativa dirigida al personal empleado público.

TERCERO.- Viabilidad jurídica y material del proyecto.

El marco legal que habilita la competencia que se ejercita deriva de lo dispuesto en la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco; el Decreto Legislativo 3/2023, de 21 de septiembre, sobre Régimen Jurídico del IVAP; el artículo 14 del Decreto 133/2021, de 4 de mayo; y los artículos 18 y 32 del Decreto 30/2008, de 19 de febrero.



Se justifica en los argumentos ya expuestos en la parte introductoria de esta orden, donde se motiva la necesidad de adecuar la normativa vigente y mejorar la eficiencia del procedimiento.

CUARTO.- Repercusiones en el ordenamiento jurídico.

La aprobación del proyecto de orden supondrá la derogación expresa de la Orden de 8 de marzo de 2017, del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regulan los requisitos y el procedimiento para la homologación de acciones formativas por parte del Instituto Vasco de Administración Pública

QUINTO.- Incidencia presupuestaria e impacto económico.

La presente orden no supondrá un incremento del gasto público ni tendrá repercusión en el presupuesto del Instituto Vasco de Administración Pública, puesto que la gestión del procedimiento de homologación es una labor que será realizada por el personal adscrito al Servicio de Formación del IVAP. Asimismo, dado que el objeto de la norma se circunscribe a la homologación de la formación para el personal del sector público, no se prevé que la misma genere cargas administrativas ni tenga impacto directo en la actividad de las empresas, con especial referencia a las pequeñas y medianas empresas.

SEXTO.- Trámites e informes procedentes.

El procedimiento se desarrollará de conformidad con lo dispuesto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, y el Modelo Básico de Tramitación correspondiente, a través de la plataforma informática Tramitagune. Se prevén los siguientes trámites principales:

Fase de Consulta Previa e Inicio

Se publicará la presente Orden de Inicio en el Tablón electrónico de anuncios de la Sede electrónica del Gobierno Vasco para la consulta al resto de departamentos. Asimismo, se dará publicidad a este hito en el portal de transparencia Legegunea.

Fase de Instrucción

Se elaborará el borrador del texto articulado y la Memoria de Análisis de Impacto Normativo, que incluirá el Informe de Impacto en Función del Género, en el que se analizará el impacto potencial de la propuesta en la situación de mujeres y hombres y se pondrá a disposición de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

Una vez dictada la Orden de Aprobación Previa, que incluirá el texto articulado del proyecto, se publicará en el Tablón electrónico de anuncios para dar inicio al trámite de información pública y al plazo común para solicitar simultáneamente los informes preceptivos que correspondan. En este procedimiento, se consideran necesarios el informe de la Dirección de Empleo Público y el informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas. Se valorará, en aplicación del artículo 17.5 de la Ley 6/2022, la pertinencia de prescindir del trámite de audiencia directa a la ciudadanía, en la medida en que la norma tiene un carácter organizativo y sus destinatarios principales son las administraciones públicas y su personal. Se dará participación en el procedimiento a las administraciones forales y locales.

Finalizados los trámites anteriores, se solicitarán los informes preceptivos de carácter esencial, concretamente el informe jurídico de la asesoría jurídica del IVAP, según lo previsto en el artículo 12 i) del



Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco y, tras su recepción, el informe de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico.

Durante la fase de instrucción, la dirección proponente podrá modificar el texto inicial, atendiendo las consideraciones de los informes recibidos. Antes de la remisión del expediente a la Oficina de Control Económico, así como cuando modifique el texto propuesto, se elaborará una memoria que recoja las modificaciones que se hayan realizado, y que justifique por qué no se realizan las modificaciones que puedan desprenderse de los informes recibidos.

Durante todo el procedimiento, se publicarán los hitos y documentos relevantes en el portal de transparencia Legegunea, en cumplimiento de la normativa vigente.

No se considera necesario realizar ningún trámite de comunicación a las instituciones de la Unión Europea, por tratarse de una materia no incluida en el ámbito del derecho comunitario.

SÉPTIMO.- Contenido de la regulación propuesta.

El proyecto de orden regulará los requisitos y el procedimiento para la homologación de acciones y planes formativos por parte del IVAP, y contendrá, al menos, los siguientes aspectos:

Objeto y ámbito de aplicación.

Personas destinatarias y exclusiones.

Requisitos para la homologación de acciones formativas.

Requisitos para la homologación de planes de formación.

Procedimiento de solicitud, plazos y documentación.

Instrucción y resolución del procedimiento.

Régimen de modificación de acciones y planes homologados.

Obligaciones de las entidades organizadoras y actuaciones de comprobación por parte del IVAP.

Régimen de justificación, registro y publicidad de las homologaciones.

OCTAVO.- Redacción bilingüe del proyecto.

Desde el inicio del expediente se notificará al Servicio Oficial de Traductores (IZO) para su conocimiento. La elaboración del proyecto de orden se realizará garantizando un enfoque bilingüe. Para su publicación final en el Boletín Oficial del País Vasco, se solicitará al IZO la preceptiva certificación de exactitud y equivalencia de las versiones en euskera y castellano, siguiendo el procedimiento establecido para las disposiciones con rango de orden.

NOVENO.- Órgano encargado de la tramitación.

Se designa a la Subdirección de Selección y Formación del IVAP como órgano encargado de la instrucción y tramitación de este procedimiento, de acuerdo con las competencias que le atribuyen el Decreto 133/2021,



de 4 de mayo, por el que se regula la estructura y funciones del Instituto Vasco de Administración Pública, y demás normativa de aplicación.

Por todo lo expuesto,

RESUELVO:

ÚNICO.- Iniciar el procedimiento para la elaboración del proyecto de orden por la que se regulan los requisitos y el procedimiento para la homologación de acciones formativas y de planes de formación por parte del Instituto Vasco de Administración Pública, en los términos detallados en la presente orden.

En Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma electrónica.

LA CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO,

MARÍA UBARRECHENA CID